



**SISTEMAS
ALIMENTARIOS
PARA LOS
PUEBLOS**

Elikadura Sistema korporatiboak
eraldatzeko herrien kontra mobilizazioa



ELIKADURA-SISTEMA KORPORATIBOEI EZ! GURE AUKERA, ELIKADURA BURUJABETZA!

COVID-19ren egungo pandemiaren, kaos klimatikoaren, gose eta malnutrizio mota guztien igoeraren, suntsipen ekologikoaren eta krisi humanitario ugarien aurrean (gu geu)¹, gizarte-mugimenduen, herri indigenen artikulazioen, gobernu kanpoko erakundeen eta erakunde akademikek, elikadura-subiranotasunarekin dugun konpromisoa baieztatzen dugu. Gaur egungo Elikadura-sistemen kolonizazio korporatiboa eta Nazio Batuen isladan burutzen ari den Elikadura Sistemen Goi Bileraren gobernantza gaitzetzun dugu.

Elikadura-sistema industrialak, munduko hornidura-kateak eta elikaduraren gobernantzaren kontrol korporatibo gero eta handiagoa dira biztanleriak eta planetak aurre egin behar dieten mehatxu interkonektatu eta existentzialen erantzunleak. Krisi klimatikoa, basoen desagertzea, biodibertsitatearen galera, luraren eta ozeanoen degradazioa, airearen eta uraren kutsadura, gosea, marjinazioa eta giza eskubide kontaezinen galerak besteak beste. Baliabideen, politika-eztabaiden eta erregelamendu-prozesuen kontrol korporatiboan oinarritutako garapen estruktibistako elikadura-sistema bat sortu da, bi mila milioi pertsona baino gehiago subalimentatuta eta ekonomikoki baztertuta utzi dituen berbera². Gainera, produktu industrial ultraprozesatuek malnutrizioa, dietarekin lotutako gaixotasun kutsaezinak eta obesitatea eragiten dituzte. COVID-19 pandemiak agerian uzten ditu merkatuan oinarritutako ikuspegi korporatibo horren egiturazko ahuleziak eta mundu mailako desorekak. Argi dago eredu honek huts egiten jarraitzen duela, botere-asimetria sakonengatik eta erakundeek eta politika publikoek ondasun publikoaren eta pertsona ahulenen eskakizun eta beharren zerbitzura daudela bermatuko luketen erantzunkizun politikoaren eza medio. Inoiz baino gehiago ekintza politikoak behar dira, tokian tokitik eta nazioarterainokoak, negoziazio demokratikoan eta adostasun politikoan eraikuntzan oinarritutakoak, herrialdeen arteko desoreka gero eta handiagoari aurre egiteko eta, horien barruan, egiturazko bidegabekeriari, genero-indarkeriari eta migrazioei aurre egiteko. Statu quo-a jasanezina da munduko biztanle gehienentzat, eta bideraezina gure gazteentzat eta etorkizuneko belaunaldientzat. Ezin dugu baliabide publiko eta agintaritzak instituzional gehienak desbideratzen jarraitu, ezin dira baliabide publikoak interes korporatiboetarako baliagarriak diren eta erronka global sistemiko horiei aurre egitea lortuko ez duten irtenbide faltsuetara bideratu.

¹ Herriek Elikadura Sistemei buruzko Nazio Batuen Goi Bilerari emandako Erantzun Autonomoa oinarritzako prozesu bat da, eta sektore guztietako nazioarteko, eskualdeko, nazioko eta tokiko ehunka erakundek osatzen dute: eskala txikiko nekazariak, emakumeak eta gazteak, herri indigenak, pastoralistak eta lurrik gabeko pertsonak, nekazaritzako eta elikagaigintzako langileak, artisautzako arrantzaleak, kontsumitzaileak, hiriguneetan elikagaien segurtasunik eza pairatzen duten pertsonak eta gizarteko eremu askotako GKEak. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus: [Foodsystms4people.org](http://foodsystms4people.org)

² <http://www.fao.org/3/cb4474en/online/cb4474en.html>

Krisiari aurre egiteko eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren beharra

Bidezkoa eta iraunkorra den bide bakarra elikagaien sistema korporatibo globalizatuak berehala geldiaraztea eta eraldatzea da. Bide horretan, lehen urratsa elikadura egokia izateko giza eskubidea aitortzea, aplikatzea eta erabat betearaztea da, Nazio Batuen Estatuaren eta organismoen³ betebeharra baita. Funtsezkoa bada ere, elikadura egokia izateko eskubidea zatiezina da oinarritzko beste giza eskubide batzuetatik, hala nola osasunerako, etxebizitzarako, lan-baldintza segurueterako, gutxieneko bizi-soldatetarako, gizarte-babeserako, emakumeen eta pertsonen eskubideetarako (LGBTQIA+), ingurune garbietarako eta eskubide zibil eta politikoetarako eskubideetatik, negozio kolektiborako eta parte-hartze politikorako eskubideetatik barne, kolektiboki zentralak izan beharko bailukete edozein eraldaketa-prozesutan. Eskubideetan oinarritutako orientazio kritiko horrekin, elikagaien politika eta gobernantza publikoak gobernantza-mahaiaren eta politiken erdigunean jarri behar ditu nekazariak, herri indigenak, arrantzaileak, artzainak, langileak, lurrik gabekoak, basoetako biztanleak, kontsumitzaileak, hiri- eta landa-eremu pobreak eta, horien artean, emakumeak eta gazteak. Gobernuak eta maila lokaleko eta nazioarteko erakundeek sektore horien bideak babestu behar dituzte elikadura-sistema korporatiboak eraldatzeko, agroekologiaren eta elikadura-burujabetzaren bidez. Giza eskubideak aintzat hartzen ez dituen eta elikadura-sistemak eragile horien borondatea esplizituki eta modu esanguratsuan nabarmentzen ez duen elkarrizketa-prozesu huts oro arbuatzen dugu.

Nazio Batuen Elikadura Sistemen Goi Bilera (NBESGB): alderdi interesdun askoren legez kanpoko gobernantzak botere korporatiboa errazten du

2021eko ESNBGBk, Nazio Batuen idazkari nagusiak Munduko Ekonomia Foroarekin (FEM) akordio zabala sinatu eta gutxira hasitakoak, ez ditu oinarritzko baldintza horiek betetzen. Munduko Ekonomia Foroak, munduko korporazio handienetako batek ezarri zuena, eta bere afiliatuek Gailurraren diseinua, egitura, prozesuak, gobernantza eta edukia kontrolatu dituzte. Korporazio multinazional handiak gero eta gehiago infiltratzen ari dira Nazio Batuen eremu multilateraletan, iraunkortasunaren kontakizuna batera aukeratzeko eta teknologia digital eta biologikoen bidezko industrializazio handiagoaren kanaletara desbideratzeko, landa-komunitateen aberastasuna eta eskulana erazteko eta botere korporatiboa gobernantza nazional-globalean kontzentratzeko. NBESGBk kapitalean eta teknologian zentratutako agendak interes korporatibo horiek islatzen ditu, eta politikoki, sozialki, ekonomikoki eta ekologikoki ezegonkortzailea da. Salatu egiten dugu 2021eko NBESGB, korporazioek botere-desoreka handiak dituztelako elikadura-sistematan eta Nazio Batuen ekintza honetan, eta baztertu egiten ditugu pertsonak, komunitateak eta lurraldeak zapaltzen eta esplotatzen jarraituko duten irtenbide faltsuak.

Giza eskubideetan oinarritu beharrean, NBESGB parte interesdun askoren foroa da, non eragile guztiak, gobernuak, norbanakoak, eskualdeko/nazioarteko erakundeak edo enpresen/korporazioen ordezkariak, parte-hartzaile gisa aurkezten diren berdintasunean oinarrituta. Baina alderdi interesdunak ez dira nahitaez eskubideen titularrak: pertsonen eta komunitateen eskubideak eta burujabetza ez lirateke sektore pribatuaren enpresa-interesekin nahastu behar. Munduko elikagai gehienak ekoizleek eta eskala txikiko langileek ekoizten dituzten arren, alde interesdun askoren prozesu indibidualizatu honek neurritz kanpoko boterea ematen die elikagaien, nekazarien eta kapitalen merkatuak kontrolatzen dituzten korporazio boteretsu gutxi batzuei. NBESGBren zientzia-taldeak politika arduratsuak egiteko oinarri zientifikoa murrizten du: korporazioek babestutako kontakizun mugatuak sustatzen ditu, eta hainbat ezagutza-mota eta ezagutza-eremu espezializatu baztertzeko, hala nola agroekologia, ezagutza indigena eta giza eskubideak.

³ Ikus http://www.srfood.org/images/stories/pdf/officialreports/20110308_a-hrc-16-49_agroecology_es.pdf; y <https://undocs.org/es/A/RES/73/165> (arts. 2, 15 y 16).

Goi-bilerako prozesuetan interes-gatazken arloko babes egokirik ez dagoenez, korporazioek bultzatutako koalizioak politika publikoak aplikatzeko eragile gisa kokatu dira baliabide publikoekin, baina kontuak emateko mekanismorik, agindurik eta erakunde publikoen gardentasun-araurik gabe.

Ez dugu onartuko korporazioen aldeko "ekintza-koalizioak" eragin dituen eztabaida-prozesu ez garden eta desorekatu hori. Patentatutako eta "irtenbide berritzaile" gisa proposatzen diren kapital-erabilera intentsiboko teknologiak eta produktuak ekologikoki suntsitzaileak izango dira, estraktibismoa, kolonialismoa, patriarkatua eta desorekak sakonduko dituzte, eta esfera gehiago irekiko dituzte hedapen eta kontrol korporatiborako.

NBESGBren gobernantza-egituraren porrota agerian geratu da; izan ere, "Alderdi interesdun" asko prozesua bertan behera uzten ari dira, eta ez da lortu Nazio Batuetako estatu kideen arteko adostasun politikorik Agenda 2030en helburuak lortzeko bide benetan eraldatzaileei buruz. Testuinguru horretan, onartezina iruditzen zaigu NBESGB, gobernantza ez-normatiboko egitura duen prozesu ez-arauemailea den aldetik, Nazio Batuen Munduko Elikagaien Segurtasuneko Batzordea (CSA) urratzen eta ahultzen saiatzea. Batzorde hori gobernuen arteko sistema bat da, eta elikaduraren gobernantzarako Nazio Batuen erakunde aldeaniztun nagusia eta inklusiboena, elikaduraren arloko elkarriketetan eta politketan buru izateko autoritate eta legitimitatearekin. NBESGBk ez du aginpide hori, eta CSAren erreformaren agindua eta estatutuak urratzen ditu. CSAren ikuspegia eta prozesu inklusiboak aitortzea eta indartzea eskatzen dugu. Era berean, Nazio Batuetako buruzagiei gogorarazten diegu NBESGBk ez duela agindurik edo legitimitaterik 2021eko irailaren 23tik aurrera, eta gure gobernuari eskatzen diegu aldeaniztasuna eta politika parte-hartzaileak eta eskubideetan oinarritutakoak egin ditzatela, CSAko estatu kideek gizarte zibileko erakundeen eta gizarte-mugimenduen partaidetza-arauei buruz ezarri duten bezala.

Elikadura-sistema eraldatzeko, elikadura-burujabetza

Elikadura-sistema iraunkor, zuzen eta osasuntsuen aldeko borroka ezin da baztertu aitortu eta errespetatu ez diren eskubideak, ezagutzak eta bizibideak dituzten herrien errealitateetatik. Gure elikadura-sistemen arazo sistemikoei aurre egiteko irtenbide bideragarriak ditugu. Elikadura-sistemei buruzko Nazio Batuen goi-bilerari herriek emandako erantzun autonomoan eskatu dugunez, elikadura-sistemen eraldaketak ekologikoki eta sozialki eraldatzailea izan behar du, berdintasunaren eta justiziaren ikuspegi feminista planteatuz. 1996az geroztik, mugimendu sozialak eta gizarte zibila gobernantzako mugimendu globala eta prozesu komunitarioak eraikitzen aritu dira elikadura-burujabetzaren ikuspegiaren inguruan, agroekologian eta elikagaiak eskala txikian ekoizten dituzten pertsonen, langileen, herri indigenen, emakumeen, gazteen eta landa- eta hiri-komunitateen eskubide eta nahietan oinarrituta. Elikadura-burujabetzaren 25. urteurren honetan, gure batasuna eta konpromisoa berresten ditugu estrategia erabat eraldatzaileak bultzatzeko, herrien beharrak aitortzeko, duintasuna emateko, natura errespetatzeko, pertsonak etekinen gainetik jartzeko, harrapaketa korporatiboari aurre egiteko eta pertsona guztientzat bidezkoa eta duina den elikadura-sistema baten alde lan egiteko.

ELIKADURA BURUJABETZA ORAIN!

SINATU HEMEN

<https://forms.gle/qaoE8aPqyaHHNmC87>

4 Ikus: <https://www.foodsystems4people.org/655-2/?lang=es>